

# Makina elektrikoak


## Definizioa eta makina-motak

Makina elektrikoa energia elektrikoa sortu edo erabiltzen duen edozein makina da.

Makina elektrikoak hiru atal hauetan sailka daitezke:

- **Sorgailuak.** Energia mekanikoa edo bestelako energia erabiliz, energia elektrikoa sortzen dute.
- **Transformadoreak.** Energia elektrikoa erabiliz, beste ezaugarri dituen energia elektrikoa ematen dute.
- **Motorrak.** Energia elektrikoa erabiliz, energia mekanikoa ematen dute.


## Transformadoreak



Transformadoreetan energia elektrikoa sartzen da (240 V-eko korrante alternoa hemengo kasuan) eta energia elektrikoa ateratzen da (80 V-eko korrante alternoa).


Tentsioen balioen arteko erlazioa harilaren espira-kopuruen arteko erlazioarekin lotuta dago.

## Sorgailuak



Sorgailuak energia mekanikoa erabiliz energia elektrikoa lortzen du: harilak biratzean, elektroiak mugitu egiten dira eta korrante elektrikoa sortzen da.

## Motorrak



Eremu magnetikoan dagoen harilatik korrante elektrikoa pasatzean, indar bat sortuko da, harila biratzera eramango duena.

Harilaren errotazioa da motorrean lortutako energia mekanikoa.